

2024KO EKITALDIKO DIRU LAGUNTZA IZENDUNA

ESKORIATZAKO UDALA

ETA

ARIZMENDI KIROI ELKARTEA

Eskoriatzan, 2024ko ekainaren 4an.

BILDUTAKOAK

ALDE BATETIK, Edorta Zubizarreta Alegria, Eskoriatzako Udaleko Alkate-Udalburua.

ETA BESTETIK, Gari Ibarzabal Bastarrika jauna, Arizmendi kirol elkarteko lehendakaria.

PARTE HARTZEN DUTE

Edorta Zubizarreta Alegria jaunak **ESKORIATZAKO UDALAREN** izenean eta ordezkartizan.

Gari Ibarzabal Bastarrika jauna, Arizmendi kirol elkartearen izenean eta ordezkartizan, helbidea Arrasaten, Otolara lizentziatuan duena, IFK G20420279.

Alde biek kontratu hau egiteko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta honako hau.

ADIERAZTEN DUTE

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko kirolaren gaineko 14/1998 Legearen 1. artikulua dioenez, kirola interes publikoko jardura soziala da eta lagungarria da pertsonak prestatu eta osotasunean garatzeko, bizitza-kalitatea hobetzeko eta norbanakoaren zein gizarte mailako ongizatea bultzatzeko.

2.- Ikuspegi horretatik, Legeak berak, zioen azalpenean jasotzen ditu printzipio iradokitzaile bezala herri-agintek kirol praktika bermatu beharra dutela laguntza pribatua sustatuz, eta kirolerako ekonomia baliabideak eskuratzeko sektore pribatutik lortu behar dela finantzazioa, ekintza publikoaren osagarri izan dadin.

3.- Kirol sistemaren oinarrietako bat herrietako klub eta kirol elkarteak dira. Elkarreok ezinbesteko betebeharra dute ikasleen heziketa integratzen eta baita helduagoek kirola egiten jarraitu ahal izateko baldintzak lortzeko bidean ere.

4.- Arizmendi kirol elkarteak, Eskoriatza eta inguruetakoko gazteek kirola praktikatzeko aukera zabala izan dezaten eta orokorrean kirol ohitura osasungarriak sustatzeko osaturiko elkarteak da. Bailerako beste kirol elkarteekin elkarlanean eta bertako kirol aukerak bultzatuz, herrira zabalik dagoen kirol elkarteak da.

5.- Gaur egun Arizmendi Kirol Elkarreok kirol arlo hauek eskaintzen ditu Eskoriatzan: Boleibola, futbola, igeriketa eta pilota.

- Boleibola. Ikasturte honetan boleiboleko 2 taldek Arizmendi Almen guneko kirolegian entrenatu dute. 4 Astebukaeratan boleiboleko infantil, kadete eta jubenil partidoak jolastu dira. Guztira 15 Eskoriatzarrek boleibolean jolasteko aukera izan dute. 15 neska eta 4 mutil
- Esku pilota. Astelehen, astearte eta ostiraletan bi begiraleen laguntzarekin entrenamedu saioak egin dira. 20 mutil eta neska batek hartu dute parte. Aurten 4 astebukaeratan benjaminen txapelketak antolatu dira.
- Igeriketa. 4 neska apuntatu ziren, ondoren partaidetza jesiten joan da.
- Futbola. Ibarra futbol zelaian hainbat Eskoriatzarrek futboleko jolasteko aukera izan dute. Guztira 9 neska aritu dira futbolekoan.

Guztira: 53 Eskoriatzar kirolari. 29 Neska eta 24 mutil.

6.- Orain arte Arizmendi Kirol Elkarteak izan duen ibilbideak erakusten du gaitasun tekniko bikaina duela Eskoriatzako herrian kirol ohitura osasuntsuak sustatzeko. Euren indarrak gaztetxoengana zentratuz, txikitatik kirol ohiturak eurenganatu ditzaten.

7.- Diru-laguntzei buruzko izaera orokorreko azaroaren 17ko 38/2003 legearen 22. artikulua diru-laguntza zuzenak jasotzeko aukerak aipatzen ditu, eta besteak beste, udal erakundeen aurrekontuetan nominatiboki aurreikusita egon behar dutela eta hitzarmenen eta laguntzen araudiaren arabera eman behar direla zehazten du.

8.- Eskoriatzako Udaleko 2024ko aurrekontuetan Arizmendi kirol elkartearentzako 2.500 euroko diru laguntza nominatiboa aurreikusten da 0300.481.341.80.01 partidatik.

Aipatutako araudiari jarraituz eta testuinguru horren esparruan, hitzarmenak Eskoriatzan kirola egitea sustatuko duelakoan, Eskoriatzako Udalak eta Arizmendi kirol elkarteak honako lankidetzeta-hitzarmen hau formalizatuko dute ondorengo klausulen arabera:

KLAUSULA OROKORRAK

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN HELBURUA.

Hitzarmen honen helburua da Arizmendi Kirol Elkarteak bai Eskoriatzan bai Leintz bailaran egiten duen kirolaren eta bizi ohitura osasuntsuen sustapena bultzatzea. Horretarako 2024ko ekitaldiko udal aurrekontuan Arizmendi kirol elkartearen izenean dagoen diru laguntza izenduna antolatzea ohiko funtzionamenduak zein elkartearen 2023-24 denboraldian antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko elkarre horri.

BIGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA.

Hitzarmen hau hitzarmena sinatzen den egunean sartuko da indarrean, eta 2024ko abuztuaren 31ra arte iraungo du.

Dena den, sinatzaileek hitzarmena bertan behera uzteko aukera izango dute beste aldeari idatzizko salaketa aurkeztuta; hitzarmenean jasotako erabakiak ez betetzeagatik.

HIRUGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA.

Bi aldeek beharrezkotzat jotzen dute hitzarmenaren jarraipen batzordea eratzea. Aurreikusitakoa eta hartutako konpromisoak betetzen direla zainduko du batzordeak eta orokorrean etorkizunean gertatu litezkeen auziaz arduratuko da. Batzorde horretako kide izango dira:

- Udalaren aldetik: Kiroletako zinegotzia edo berak eskuordetutako pertsona.
- ARIZMENDI KIROL ELKARTETIK: Gorka Gabilondo Jauregi edo Gari Ibarzabal Bastarrika

LAUGARRENA.- ZERGA BETEBEHARRAK ETA GIZARTE SEGURANTZAREKIKOAK.

Arizmendi Kirol Elkarteak egunean izan beharko ditu zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak hitzarmena sinatu baino lehen eta hitzarmenaren indarraldiak dirauen bitartean. Horretarako, hitzarmen hau sinatzearekin dagozkion ziurtagiriak telematikoki lortzeko baimena ematen dio berariaz Eskoriatzako Udalari.

BOSGARRENA.- DIRU LAGUNTZEN ERREGISTRO PUBLIKOAN SARTZEA ETA EMANDAKO DIRU LAGUNTZA ARGITARATZEA.

1. Diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege orokorreko 20.1 artikuluan ezarritakoa eta lege hori garatzeko gainerako araudia betez, emandako diru laguntzari buruzko datuak eta ERAKUNDE ONURADUNAREN identifikazioa Estatuko Kontu-hartze Orokorrera bidaliko dira diru laguntzen datu base nazionalen gorde daitezkeen, agindu horretan aurreikusitako helburuarekin bakar-bakarrik, eta datu pertsonalen babesari dagokion begirunearekin, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera.
2. Diru laguntzei buruzko 38/2003 Legeko 18. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, ERAKUNDE ONURADUNARI emandako diru laguntza Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

SEIGARRENA.- IZAERA, INTERPRETAZIOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA.

1. Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta bertako baldintzen interpretazioan sor daitezkeen zalantzak erabakitzeke honako hauek aplikatuko dira:
 - Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
 - Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
 - Toki Araubidearen gainean indarrean dauden xedapenen Testu Bategina, apirilaren 8ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuz onartua.
 - Toki erakundeen ondasunei buruzko araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua.
 - Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea.
 - Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzaldiko Errege Dekretua.
2. Hitzarmen hau aplikatzerakoan sor daitezkeen zalantzak eta hutsuneak argitzea Eskoriatzako Udalbatzarrari dagokio.
3. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitakoaren arabera, administrazioarekiko auzi jurisdikzio organoek dagokie hitzarmen honen ondorioz sor daitezkeen auziez arduratzea.

KLAUSULA ZEHATZAK

ZAZPIGARRENA.- DIRU LAGUNTZAREN HELBURUA ETA ZENBATEKOA.

Eskoriatzako Udalak, 2024ko aurrekontuaren kargura, 2.500 euroko diru laguntza ematen dio Arizmendi Kirol Elkarteari pilota, futbola, boleibola eta igeriketako taldeak sustatzeko egiten dituen jarduerak garatzeko.

Arizmendi Kirol Elkarteari diru laguntzaren helburuan zehaztutakoak burutuko ez balitu, horri dagokion kopuru berean murriztuko zaio emandako diru laguntza, eta itzuli egin beharko du dagokion balioaren gainetik jasotako diru laguntza.

ZORTZIGARRENA.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK.

Diruz lagungarritzat joko dira indarrean dagoen araudiaren arabera zuzen justifikatuta egonda, beharrezkoak direnak eta diruz lagundutako proiektu eta jardueren izaerari eta garapen normalari erantzuten diotenak inolako zalantzarik gabe.

Gastuak diruz lagungarri izateko arau orokorrak hiru printzipio ditu:

- Gastuak diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzun behar dio.
- Gastuaren kostea ezingo da izan merkatukoarena baino handiagoa.
- 2023-24ko ekitaldiaren barruan egin beharko da.

Beste batzuen kaltetan gabe, diruz lagungarri honako hauek joko dira:

- Ikastaroak eta hitzaldiak.
- Jarduerak ezagutzera emateko eta horiek iragartzeko eta propaganda egiteko ekintzak.
- Jarduerak estaliko dituzten aseguruak.

- Federazio eta epaile gastuak.
- Dietak, kilometro-gastuak eta bazkari-afari-hotel edo ostalaritza zerbitzuen kostea antolatutako jardueraren batekin zalantzarik gabe behar bezala identifikatuta daudenean. Edozein modutan, koste horiek behar besteko proportzioa gorde beharko dute egindako gastuaren eta lortu nahi zen helburuaren artean.
- Arropa, kirol ekipamendua eta jarduerak egiteko beharrezko beste hornidura batzuk.
- Kanpoko zerbitzuak, horiek kontratatzea beharrezkoa denean proiektua gauzatzeko.
- Boluntarioen laguntzak sortutako gastuak. Boluntariotzat joko da taldeak antolatutako jarduera batean libreki eta eskuzabaltasunez (dirurik irabazteko asmorik gabe) parte hartzen duena (ez dago lan harremanik, ez dute ordain ekonomikorik jasotzen eta ez da laguntza ematen betebeharrak pertsonala izateagatik). Boluntariotzak sortutako gastuak jasotzeko eta beraien jarduera egiterakoan jasan dezaketen kalte-galerengatik aseguratuta egoteko eskubidea dute. Boluntarioei dagokienez, alojamendu edota mantentze gastuak eta bidaiak sartu ahal izango dira.
- Beste gastu batzuk, adibidez, bulegoko material suntsikorra, telefonoa, interneterako lotura, garbitasun materiala, ibilgailuentzako erregaia eta abar "gastu justifikagaitzak" izeneko sail bakarrean jaso ahal izango dira. Horiek ez dute dokumentu bidez justifikatu beharrik izango, baina ezingo dute, inolaz ere, erakundearen gastu osoaren % 10a gainditu.

- Ez dira onartuko gastu oharrak eta beste dokumentu batzuk, legezko baliodun faktura edo egiaztagiritzat jotzeko eskatzen diren arauko baldintzak betetzen ez badituzte.

BEDERATZIGARRENA.- BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN PILATZEKO AUKERA ETA FINANTZAZIO MUGAK.

Emandako diru laguntza bateragarria izango da helburu bererako Udalak edota beste erakunde publiko edo pribatuek emandako diru laguntzarekin. Hala ere, inolaz ezin izango da onartu gain-finantzaziorik. Horrelakorik gertatuz gero, emandako diru laguntza murriztu egingo da diruz lagundutako ekintzaren kostu totalaren mugara.

HAMARGARRENA.- DIRU LAGUNTZA ORDAINTZEKO EPEAK.

Diru laguntza modu honetara ordainduko da:

% 60a ondorengo dokumentazioa paperean eta digitalki (CD edo USB) aurkeztutakoan eta hitzarmen hau sinatu ondoren:

- 2023-24ko jarduera programa.
- 2023-24ko hizkuntza datuak (jasota ditugunak kontrastatu, diferenteak badira, berria)
- Diru sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatua.
- Helburu bererako eskatutako edota jasotako beste laguntzei buruzko zinpeko aitortpena.
- Diru laguntza ordaindu beharreko banku-kontuaren gaineko ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekiko, Eskoriatzako Udalarekiko eta Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzea.
- Adin txikikoekin arituko diren monitoreen delitu sexualik ez dutearen ziurtagiria.

Gainerako % 40a, organo eskudunak diru laguntzaren kitapena onartutakoan ordainduko da, hau da, diruz lagundutako jarduerak erabat eta zuzen justifikatutakoan 11. baldintzan eskatutako dokumentazioa aurkeztuta eta ondorengo baldintzak bete direla ziurtatutakoan:

- Herrian esku pilota sustatzen jarraitzea, horretarako herri mailako txapelketak ere antolatuko dira.
- Igeriketako benjamin eta alebin taldeak sustatzea.
- Futbolean aritzeko nahi duten neska guztientzat benjamin, alebin, infantil, kadete eta nagusien taldeak sustatzea.
- Esku pilota sustatzea, baita emakumeen parte-hartzea ere.
- Boleibolean aritzeko Almeneko kiroldegia erabiltzea.
- Proiektu horietako gastuak justifikatzea.
- Euskararen erabileraren normalizazioa sustatzea.

HAMAIKAGARRENA.- DIRU LAGUNTZA ZURITZEKO EPEAK ETA ERA.

Justifikatzeko modua KONTU SINPLE JUSTIFIKATU bidez izango da.

2024ko irailaren 30a baino lehen, eta justifikazio ondorioetarako, ARIZMENDI KIROL ELKARTEAK ondorengo dokumentazioa aurkeztuko du Udaleko Erregistro Orokorrean:

1. Eskaera orria.
2. Elkartearen jarduera osoaren memoria.
3. 2023-24 hizkuntza datuak
4. Dokumentazio grafikoa (kartelak, liburuxkak, libretoak, banatutako idatzizko materiala, prentsa oharrak eta abar).
5. Diruz lagundutako jardueran izandako sarreraren eta gastuen balantzea, hasieran aurkeztutako aurrekontuari egokitu dela egiaztatzeko. Hasieran aurkeztutako aurrekontuari zein neurritan egokitu zaion balantzea egiaztatzeko, justifikazioarekin batera hasierako aurrekontuarekiko balantzeak izandako desbideraketa taula aurkeztu beharko da, eta desbideraketarik izanez gero, horiek justifikatzeko txostena ere egin beharko da.
6. Idazkariak presidentearen oniritziarekin egindako ziurtagiria diruz lagundutako jarduerarako jasotako diru laguntzei eta gainerako sarrerei buruz, horiek balantzean jasota edo jaso gabe egotea kontuan hartu gabe.
7. Elkartearen gastuen zerrenda sailkatua honako hauekin: hartzekodunaren identifikazioa, faktura zenbakia edo froga-balio baliokidea duen dokumentua, zenbatekoa, fakturaren data eta ordainketa eguna. LAGINKETA TEKNIKA. Gastu zerrendatik, udal kontuhartzailtzak eta arloko teknikariak elkarrekin aurrez aukeratuta, eta eska daitezkeen gutxienekoa izanik, aitortutako gastuen zenbateko osoaren % 20tik gorako gastu portzentajea egiaztatuko da (gutxienez, emandako diru laguntzaren besteko kopurua izan beharko da). Gastuak justifikatzerakoan aitortutako gastu zerrendan izandako faltsukeriatatik, zehaztasun ezagatik edo akatsengatik egon daitezkeen gorabeherak zigortu egingo dira diru laguntza kitatzerakoan.

Gastu horiek honela justifikatuko dira:

- a) Jardueragatik egindako gastuen jatorrizko fakturak (ordainketa egiaztatuta) behar bezala beteta, edo horien fotokopia konpultsatuak. Fakturak udal erregistro orokorrean konpultsatu ahal izango dira.

Fakturrek, gutxienez, honako hauek izan beharko dituzte:

- Faktura egiten duen enpresa edo pertsona fisikoaren datu guztiak: izena, helbidea, IFK edo NAN.
- Kirol elkarteak ordaintzeko jaulkitako fakturak izan beharko dira, eta bertan jaso beharko dira bere izena, helbidea eta IFK, kontzeptua, unitateak, koste totala unitateko, koste totala eta BEZ banakatua edo BEZ barne den, faktura zenbakia, jaulkipen data eta ordainketa modua. BEZa salbuetsita duten operazioetan hori egiteko arauaren erreferentzia jaso beharko da.

* Ez da onartuko fakturarik pertsona fisikoen izenean.

- b) Dagokion federazioari ordaindutako fitxa eta kuota gastuak, eta baita epaileen gastuenak ere, federazioak egindako ziurtagiri bidez ere justifikatu ahal izango dira.
- c) Ordainagiri bidez justifikatu ahal izango dira honako hauek, betiere zenbatekoek ez baldin badituzte gainditzen aurrerago finkatutako kopuruak:

- C.1) Fakturarik sortu ezin dezaketen epaileen gastuak, federazioko gastuak, dirutan emandako sariak, eta taldeei eta kirolari afizionatuei dietengatik eta parte hartze kuotarengatik egindako ordainketak.
- C.2) Bidaiak, dietak eta mantenu-gastuak. Ordainagiriarekin batera gastugileak aurkeztutako tiketa edo ordainagiria (metrobusko billetea, taxi tiketa, autopistakoa...).
- C.3) Boluntarioen laguntzak sortutako gastuak. Ordainagiriarekin batera gastugileak aurkeztutako tiketa edo ordainagiria (metrobusko billetea, taxi tiketa, autopistakoa...).

Ordainagirientzako mugak:

- Jarduera bakoitzeko ezingo da ordaindu 125 € baino gehiago pertsonako.
- Urteko kopurua pertsonako ezingo da izan 300 € baino handiagoa c.1 eta c.3 kasuetan.

Ordainagirik, gutxienez, ondorengo datuak izan beharko dituzte:

- Ordaindutako zenbatekoa.
- Ordainketa jasotzen duenaren (izena, 2 abizen eta NAN) eta ordainketa agintzen duenaren identifikazioa.
- Ordainketa zer kontzeptutan agindu den eta zer jarduerari dagokion.
- Emate-eguna.

Fakturen edo ordainagirien data jardueraren exekuzio aldiaren barruan egon beharko da. Exekuzio aldiaren aurreko data duten fakturak bakarrik onartuko dira programaren jarduerak garatzeko aurrez ordaindu behar izanez gero.

Diru laguntza justifikatzeko dokumentazioa epe barruan ez aurkezteak kitzatzeko gelditzen den diru laguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du bestelako tramiterik egin beharrik gabe, eta baita ere, Udaleko dagokion unitate administratiboak ofizios hastea ordaindutako diru laguntzen aurrerapena itzultzeko espedientea.

Era berean, aurkeztutako justifikazioari buruzko argibideak behar izanez gero edo diru laguntza kudeatzen duen departamenduak egin beharreko txosten teknikoan gabeziak antzematen badira, eta gabezia horiek hasiera batean emandako diru laguntzaren eta azken kitapena egiteko proposamenaren artean doitu beharra edo desbideraketa esanguratsua eragiten badute, dagokion udal erabakia hartu baino lehen laguntza kudeatzen duen departamenduak 7 egun naturaleko epea emango du aipatutako gabeziak konpondu ahal izateko edo egoki iritzitako azalpenak emateko edo justifikazioak aurkezteko. Hori guztiori, azkenean har daitezkeen udal erabakien aurka bidezko diren errekurtsuak aurkeztearen kaltetan gabe.

HAMABIGARRENA.- KIROL INSTALAZIOEN ERABILERA.

ERABILERA EGUTEGIA:

Arizmendi kirol elkarteak, denboraldia hasi aurretik, egutegia aurkeztuko du udal kirol zerbitzuan edo hala badagokio, kiroltako zinegotzi arduradunari edo kirol aholkulariari. Non entrenamenduen egun eta orduak eta behar izango dituzten instalazioak zeintzuk izango diren adieraziko den. Kirol zerbitzuak eskaria aztertu eta beste erabiltzaile batzuk egindakoekin koordinatuko dute. Ondoren, egokitutako erabilera-egutegia jakinaraziko da.

Arizmendi elkarteak Manuel Muñoz Kiroldegian edo Joseba Iñurrategi pilotalekuan entrenamendu edo lehiaketarik antolatu nahi izango balu, kiroldegiko ordutegiaren barruan antolatu beharko ditu:

- Astelehenetik ostiralera: 7:00 - 21:00
- Larunbatak: 9:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00
- Igandeak eta jaiegunak: 9:00 - 13:00
- Abuztuan 1etik 31era (biak barne): 9:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00

Hasieran egokitutako erabilera-egutegitik kanpo Arizmendi Kirol Elkarteak beste kirol instalazioen bat behar izango balu, eskaria kiroltako zinegotziari edo Manuel Muñoz Kiroldegian egin beharko du. Behar besteko denborarekin, beste eskari batzuekin koordinatu ahal izateko.

Gizarte-interes edo erabilera publikoko arrazoiak behar bezala egiaztatzen baditu, Udalak kirol instalazioak erabili ahal izango ditu, egutegian Elkartearentzat gordetako egunetan.

ERABILERA MUGAK:

Instalazioen erabilera mugatua izango da. Erabiltzaile bakoitzak bere taldeari dagokion instalazioa soilik erabili ahal izango du, dagokion orduan.

Arizmendi Kirol Elkarteko partaide izateagatik Manuel Muñoz Kiroldegiko txartela dutenek ez dute instalazio hauen erabilera nahi dutenean egiteko eskubiderik izango, baizik eta, erabilera-egutegian finkatua dagoenean bakarrik. Horrez gain, ez dute gainontzeko abonatuak jasotzen duten onurarik jasoko.

Joseba Iñurrategi pilotalekuaren inguruan, espazioaren ezaugarriak kontuan hartuz, eta pilotarako sortutako lekua izanik, esku pilota sailak frontoia erabiltzeko lehentasuna izango du, beste kirol modalitate batzuen aurrean.

KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA:

Arizmendi Kirol Elkartearen helburua adin txikiko haurrengan (benjaminak LH-ko 3. eta 4. mailakoak eta Alebinak LH-ko 5. eta 6. mailakoak) **kirol ohiturak sustatzea** izanik, talde hauen entrenamendu eta lehiaketak antolatzean erabilitako instalazioak ez dira kobratuko.

HAMAIUGARRENA.- EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOA.

Arizmendi Kirol Elkarteak bere gain hartzen du euskararen erabileraren normalizazioaren alde lan egitea, etaorain arte egin duen bezala, euskara hutsean eskainiko ditu bere jarduera guztiak (entrenamenduak, idatzizko zein ahozko komunikazioa etab.)

HAMALAUARRENA.-ARIZMENDI KIROL ELKARTEAK HARTZEN DITUEN KONPROMISOAK.

KIROL ARLOAN:

- Erantzun zibileko aseguruaz izatea antolatutako kirol ekitaldiei aurre egin ahal izateko. Aseguruak, gutxienez, 300.000 €-ko estaldura izan behar du. Hitzarmen honen helburu den programaren funtzionamenduaren ondorioz pertsonen eta ondasunen aurka gerta daitekeen edozein gorabehera estali beharko du aseguruak, eta hitzarmena sinatu baino lehen polizaren originala edo kopia konpultsatua aurkeztu beharko da.
- Kirol arloko jarduerak behar bezala antolatzea, kirolarien osasuna eta segurtasuna bermatuz.
- Arizmendi Kirol Elkarteak Eskoriatzan egiten dituen jardueren helburua kirolaren sustapena izanik, ahalegin berezia egingo du nesken parte hartzea bultzatzeko.
- Arizmendi Kirol Elkarteak Debagoienan beteko du bere jarduera eta bertoko biztanleen onura lehenetsiko du, betiere, kontuan izanda Aldundiak kirol eskolei buruz ezarritako arauak.
- Eskoriatzako 8-12 urte bitarteko neska-mutiko guztiek izan behar dute parte hartzeko aukera, eta bere jarduera eskualdera edo probintziara mugatuko da.
- Denboraldi bakoitzean, Urriaren 1a baino lehen, Arizmendi Kirol Elkarteak elkarteko datuak eguneratu beharko ditu: ume kopurua kategoriaka (benjaminak eta alebinak) eta horien arduradunak.

KUDEAKETA ARLOAN:

- Diru-laguntzen helburua fiskalizatzeko lanetan Udalak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatutako edozein informazio eman beharko du.
- Bere jarduera burutzeko beharrezko lizentziak eta baimenak izan beharko ditu Arizmendi Kirol Elkarteak, dagokien erakundeek emandakoak. Era berean, zuzenbide pribatuko erakundea den aldetik, ez du Udalarekiko mendekotasunik ez inolako harremanik ere, beraz, azken horrek ez du bere gain hartuko, ez zuzenean ez zeharka ere, elkartearen jarduera dela eta egiteagatik edo ez-egiteagatik gertatu litezkeen kalte materialik, pertsonalik edo moralik.

KOMUNIKAZIO ARLOAN:

- Arizmendi Kirol Elkarteak antolatuko dituen jarduera guztietan eta horien inguruan kaleratuko duen propagandan, berdintasun eta genero ikuspegiak hartu beharko ditu kontuan eta hizkuntza eta irudia erabiltzean ez du inongo elementu diskriminatzailearik sartuko.

LANGILE BOLUNTARIOEI DAGOKIONEZ:

- Hitzarmenaren esparruan egiten diren jardueretan laguntzeko langile boluntarioak izanez gero, ARIZMENDI KIROL ELKARTEAK poliza bat egin beharko du boluntarioentzat, boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 1998/25 Legean aurreikusitakoaren arabera. Era berean, inolaz ere ez da menpekotasun harremanik izango boluntario horien eta Eskoriatzako Udalaren artean.

Eta, ados daudela adierazteko, alde biek hitzarmen hau sinatzen dute ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

ESKORIATZAKO UDALAREN ALDETIK

ARIZMENDI KIROL ELKARTETIK